

Telelana

Aukera izango bazenu, etxetik lan egiteko prest egongo al zinateke? Agian garbi daukazu zer erantzun, baina beharbada, uste duzu lan egiteko modu honi buruzko informazio falta daukazula erantzun serio bat emateko.

Tira, bada, sekuentzia honetan, besteak beste, telelanaren ezaugarriak, abantailak eta alde txarrak edota Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen programaren berri izango duzu eta bukaeran, seguruenik, galderari erantzuteko prest egongo zara.

Helburua:

Telelana sustatzeko programa ezagutu eta modalitate honen alde onak eta txarrak baloratzea.

Hori dela-eta, honakoak eragingo dituzu:

- Bideo-pasartean oinarritutako galderak erantzun
- Testigantzak ikusita, adierazpenak egia ala gezurra diren esan
- Saioan erabilitako hainbat molde transkripzioan kokatu
- Telelanari buruzko erreportajearen oinarritutako galderak erantzun
- Erreportajearen ataletako ideiak kokatu
- Abantailak eta desabantailak sailkatu
- Telelangile izatearen aukerari buruzko iritzia eman

ERANSKINAK

Telelana. Pijama erantzi gabe lan egitearen abantailak eta desabantailak.

Emakumearen aukera behartuak. Consumer, 2008-06-01

Telelana Eusko Jaurlaritzan

Telelana dela-eta, Eusko Jaurlaritzak 2011 hasieran abian jarritako programari buruzko audio-pasartea ikusiko duzu ataza honetan. Ekimena zertan den eta parte hartuko duten langileen gaineko informazioa eskuratu eta aztertuko duzu.

Eusko Jaurlaritzak abiarazi duen esperientzia zertan den ikusiko duzu bideo-pasartearen lehen zatian, eta ondoren, hainbat galdera erantzun beharko dituzu.

- **Aurrena, irakurri galderak eta gero bideo-pasartea ikusi.**
- **Ondoren, erantzun galderak, aukera egokiaren gainean klik eginda.**
- **Azkenik, ikusi berriro pasartea egin duzuna egiaztatzeko.**



1. Zenbat langile hasi dira programan?

- 19 hasi dira orain eta bi aste barru beste 10.
- IVAPeko 19 langile eta beste departamentuetako hainbat itzultzaile.
- IVAPeko langile guztiak.

2. Nolako erritmoarekin arituko dira lanean?

- Astean bi egunetan egingo dute lan etxean eta hiru lantokian.
- Astean hiru egun eman beharko dituzte etxean eta bi lantokian.
- Astean lau egunetan etxean egingo dute lan eta bat lantokian.

3. Edozein izan al daiteke telelangile, ala ezaugarri bereziak behar dira?

- Batez ere denbora izan behar du telelana egin behar duenak.
- Lanerako lekua daukan edozein izan daiteke telelangile.
- Pertsona autodiziplinatua izan behar du.

4. Nola jakingo dute telelangile horiek lan egiten dutela?

- Aldez aurretik ezarritako helburuak bete behar dituztelako.
- Bideo-sistema erabiliko dute euren jarduna ikusteko.
- Fitxatzeko sistema berezia izango dute.

5. Nork erabaki du zeinek hartuko duen parte programan?

- Eusko Jaurlaritzak.
- Langileek euren kabuz.
- Sindikatuek.

6. Programa honetan parte hartu duten funtzionarioek IVAPen lan egiten dute eta dira:

- lege-aholkulariak eta itzultzaileak
- osasun-langileak eta administrariak
- telefonozko harrera egiten duten langileak

Telelangileak

IVAPeko arduradunarekin eta programan parte hartzen ari diren bi langilerekin hitz egin du kazetariak. Egin dituzten adierazpenetan oinarrituta, hainbat ideia bildu ditugu, baina, adi, esaldi denak ez baitira zuzenak.

- Irakurri adierazpenak eta ikusazu bideo-pasartea
- Ondoren, adierazi ideiak egia ala gezurra diren, aukera egokiaren gainean klik eginda.

	Egia	Gezurra
Bidaian ematen dituzten orduak eurentzat irabazten dituzte etxetik lana eginez gero	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Sozialitatea izango da telelangileek galduko duten alderdietako bat	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Etxetik lana lasaiago eta kontzentratuago egingo dutela pentsatzen dute	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lehen egunetik konturatu dira telelana egin behar dutenek denbora gehiago ematen dutela ordenagailu aurrean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Produktibitatea frogatzerik ez dagoenez, oraindik langile gutxi dago programan	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Mirenek esan du emakumea etxeko lanetan gehiago kargatzen dela horrela lan eginda	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Telelanaz egon daiteke pertsona bat hilabeteak, baina ez denbora luzean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Eguneroko ohiturak ez aldatzea da onena lanean ari zarela konturatzeko	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Alexek normalean baino etenaldi gehiago egin ditu lanean programaren lehen egunean	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Moldeak kokatu

Segidan dauzkazu audio-pasartetik apartatu ditugun hainbat molde, hizkera biziaren adierazle.

- Irakurri transkripzioa, eta osatu molde horiek erabiliz, gainean klik eginda.
- Ondoren, egiaztatu egin duzuna, "zuzendu" gainean klik eginda, edo nahiago baduzu, bideo-pasarteak berriro ikusita.

1.- Aurreko legegintzaldian bazegoen asmoa, baina _____, eta behar bezala aztertu beharra zegoelako, eta baliabideak-eta ikusi nola antolatu... Zeren, azkenean, etxean dagoen hori kontrolatu behar baduzu, lan guzti horrek bere denbora behar izan du.	Bereak egin
2.- Baina bueno, aste honetan hortxe dabilta, _____ eta beraientzat arraroa den sentazio horrekin, ezta? Etxean geratu eta etxetik lan egiten.	Auzo-lotsa
3.- Argi dagoena da etxean lan egin behar duenak autodiziplinatik, seguru aski asko beharko duela, bere burua izango duelako, alegia, lantokian zaudenean, askotan _____ gatik besterik ez bada, lanean ari zara.	Biel ala biek
4.- Askotan norberak bere buruari inposatu dion neurri bat da, alegia, badakielako ez bada diziplina horretan sartzen, azkenean utzikeriak, akaso, _____ go dituela, eta gero...	Bat eta beste
5.- Telebista seguru aski etxetik ez genuke egiterik izango... Oraindik. _____ etorkizunean eta zenbait gauza egiteko ere.	Batek daki
6.- Miren Lazkaokoa da eta Alex, berriz, Laudiokoa. Eta _____ egunero Gasteizerako joan-etorrian bi bat ordu galtzen zituzten	Estrainekoz

Pijama erantzi gabe lanean

Duela gutxi arte, etxean bertan lan egitea ia pentsaezina zen besteren kontura ari ziren langileentzat. Baina, garaiak aldatuz doaz, eta teknologiari esker, gero eta aruntagoa da pijama jantzita lan egitea. Ataza honetan irakurriko duzun erreportajea baliatuta, telelanaren ezaugarriak, abantailak eta desabantailak aztertzeke aukera izango duzu. Eta bukaeran, zure iritzia emateko aukera ere izango duzu.

Telelanari hurbilpena

Bolo-bolo dabil telelan hitza azkenaldian. Horregatik, kontzeptuari hurbilpentxo bat egiteko tartea hartzea nahi genuke. Segidan dituzu telelanaren gainean maiz egin ohi diren galderak, eta horiek erantzuteko erreportajearen zati bat.

- Aurrena, irakurri galderak eta pentsatu zein izan daitekeen erantzuna.
- Ondoren, irakurri testua eta aurkitu erantzuna bertan.
- Idatzi erantzuna.
- Azkenik, egiaztatu egin duzuna.

P **ijama erantzi gabe lan egitearen abantailak eta desabantailak**

Telelanak helburuen araberako zuzendaritza eta ordutegien malgutasuna bultzatzen ditu, eta, era berean, lana eta familia-bizitza bateratzen ditu.

Gero eta arruntagoa da pijama jantzita lan egitea. Duela urte gutxi arte, etxean bertan lan egitea ia pentsaezina zen besteren kontura ari ziren langileentzat. Baina teknologia-iraultzak hautsi egin ditu tradiziozko eskemak. Gaur egun, ez da gauza handirik behar etxetik atera gabe lan egin ahal izateko: langileak derrigor lantokian egon behar ez izatea, enpresak Interneterako konexioa duen eskuko ordenagailua jartzea eta, langilearekin harremanetan egoteko, sakelako telefonoa ematea.

Telelanaren kontzeptua (telekomunikazioak erabiliz urrutitik lan egitea) 70eko hamarkadan sortu zen, petrolioaren krisia zela-eta. Orduan, autoen joan-etorriak saihestea zuen helburu, eta hartara, energia aurrezte. Gaur egun, ordea, enpresak antolatzeke modu berria da, eta lana eta familia-bizitza bateratzeko tresna eraginkorra. Espainiari begira, 1999an enpresen % 13k zituzten telelana aukeratu zuten zenbait langile, eta 2006an, berriz, enpresen % 50ek —Nuria Chinchilla eta Steven Poelmans irakasleen datuak dira, Enpresa Malgu eta Arduratsuaren Jardunbide Egokien Gidaliburutik hartuak—. Alabaina, oraindik ere gutxi dira etxetik bertatik lan egiten duten langileak (% 8). Ameriketako Estatu Batuetan edo iparraldeko herrialdeetan, berriz, langileen % 25ek aukeratzen dute telelana.

Ordutegien malgutasuna da erakargarri nagusietako bat langilearentzat, eta, bestea, bateragarri egin ditzakeela lana eta familia, eta gizarte-bizitza ere bai. Enpresek ere badituzte onurak, eta horrexegatik jotzen dute bide horretatik. Telelangileak emankorrako dira (bai, behintzat, helburuen arabera lan egiten badute), eta lanpostuaren kostua % 50 merkatzera ere hel daitezke. Hala ere, begiratu batean abantailak baino hautematen ez badira ere, Durham Business School-eko irakasle batzuek honako ondorio hauek atera dituzte azterlan batean: laneko estresak telelangileengan eragin txikiagoa badu ere, telelangileek hautematen dute laneko ibilbidean aurrera egiteko aukera gutxiago dituztela, eta lantokiko giroaren eta lankideekiko harremanaren falta sumatzen dute. Enpresaburuek, berriz, nolabait zalantzan jartzen dute telelangileen parte-hartze eta konpromisoa.



1. Noiz eta zein helbururekin sortu zen telelana?
2. Gaur egun zertan laguntzen du telelanak?
3. Telelangileen ehunekoa estatuan?
4. Onurarik telelangileentzat?
5. Onurarik enpresentzat?
6. Desabantailarik?

Atalez atal

Orain, erreportajearen hurrengo 4 atalak irakurriko dituzu. Atal bakoitzean zatitxo bat kendu dugu, eta zure lana izango da testu-zati bakoitza dagokion atalean txertatzea.

- Aurrena, irakurri atalak banan-banan.
- Atal bakoitza irakurri ahala, bilatu aukeren artean eta aurkitu falta den testu-zatia gainean klik eginda.
- Ondoren, zuzendu egin duzuna.

Telelangile-gaiak

Lehen, edozein langile sar daiteke telelangileen taldean: norberaren edo besteren kontura jarduten direnak, lanaldi partziala edo osoa dutenak.

Oro har, informazioarekin zerikusia duten jardueretan egin daiteke telelana, informazioa sortu, aldatu, hedatu, partekatu eta erabiltzen duten jardueretan. Horren adibide ditugu dokumentalistak, analistak, programatzaileak, itzultzaileak, kontulariak, kazetariak edo aseguru-etako agenteak. Telelanean aritzen dira, era berean, higiezin-etako agenteak, ordenagailu-programatzaileak, legelariak, kontulariak, aseguru eta burtsa artekariak (agenteak edo saltzaileak), sistem-etako analistak, eta administrari laguntzaileak.

Hala ere, langile askok baztertu egiten dute aukera hori. Telelanak diziplina eskatzen du, eta kultur hesiak apurto behar dira, hala nola egunero bulegora joan beharra. Telelangile-gaiak menderatu egin behar du bere lana, diziplina jarri behar dio bere buruari, eta informatikari eta komunikazioari buruzko oinarrizko ezagutzak behar ditu. Gainera, beste gaitasun batzuk ere behar ditu: norberaren burua motibatzeke, egokitzeko eta antolatzeke gaitasuna; norberarekiko konfiantza; ekimena...

Telelanak, bestalde, laneratzeko zailtasun bereziak dituzten gizarte-taldeei ere eskaintzen dizkie lan-aukerak. Horien artean, mugitzeko zailtasun handiak dituzten pertsonak aipa ditzakegu; izan ere, telelanari esker, ohiko lantokira joan beharrak ekartzen dituen eragozpenak desagertzen dira. Gauza bera gertatzen da lan-munduan hainbat hamarkadaz bereizkeria jasan izan duten beste talde batzuekin ere. Amen kasuan, adibidez, telelanak eta ordutegi-malgutasunak aukera ematen die lanbidean jarraitzeke eta, aldi berean, familia eta bizitza pertsonala zaintzeke. Hala ere, emakume askok eragozpen handiak sumatzen dizkiote telelanari: lana eta etxea bateratzeak kanpora gutxiago ateratzea eragin dezake, eta ohi baino gehiago bakartu daitezke.

Lana eta familia-bizitza bateratzea

Duela mende-erdi, Europako langileen % 92k garrantzi handiagoa ematen zioten lanari, bizitza pribatuari baino. XXI. mendean, berriz, % 54k garrantzitsuagozat jotzen dute alderdi pertsonala, Monster enplegu-atariak telelanari buruz egin duen azken inkestaren arabera. Ildo bereko adierazpenak egin zituen, 2004an, Europako Parlamentuak. Hain zuzen ere, martxoaren 9ko aktan bildutako hamar aginduetako batean honako hau xedatu zuten: urrundik lan egiteko modua dagoenean, garrantzitsua dela aukera hori egitea, emakume zein gizonezko langileek lanbidearekin, familiarekin eta hezkuntzarekin lotutako eginbeharrak bete ahal izateko, eta norberaren eta enpresaren interesen arteko oreka lortzeko.

Hala eta guztiz, familientzako laguntzetan inbertsio txikiak egiten dituen Europako herrialde-etako bat Espainia da. Barne-produktu gordinaren % 0,8ko inbertsioa, hain zuzen, Laneko Gogobetetasunari eta Bizi-kalitateari buruzko 2007ko Catenon Azterlanaren arabera. Ikerketa horren arabera, Espainiako enpresek ez dute hartzen aski neurri lana eta familia-bizitza bateratzeko. Espainiako konpainien % 5ek baino ez dute langileentzako haurtzaindegirik, eta % 10ek bakarrik onartzen dituzte ordutegi malguak (lau langiletik hiruk eskatzen dute malgutasuna).

Egoera hori kontuan hartuta, lana eta familia-bizitza bateratzeko aukerarik onena telelana dela esan dezakegu, bereziki norbait gure mende badago etxean (haurrak edo adinekoak) edo etxeko norbaitek mugitzeko arazoak baditu, eta baita norbait urrun bizi bada ere. Izan ere, telelanak leku berean biltzen ditu familia eta lana.

2004an, Telefonica konpainiako I+G arloak saiakuntza bat egin zuen, eta parte hartu zutenen % 90en iritziz, telelanak hobetu egiten du lana eta familia-bizitza bateratzeko modua. Aldiz, bakar baten iritziz ere ez du oztopatzen. Gainera, ahaideek ontzat ematen dute telelana. Laburbilduz, telelanaren eta bizitza pertsonalaren arteko egokitzapenari 4,5 puntu eman zizkioten, 1etik 5era.

Hala ere, lana eta etxea bereizten dituen lerroa mehea da, eta horrek gatazkak eragin ditzake familian.

Arazoak saihesteko, aukera bat izan daiteke egun batzuetan etxean eta beste batzuetan bulegoan lan egitea. Aukera horrek nabarmendu egiten ditu telelanaren abantailak, familiari begira kontzentrazioa eta malgutasuna handiagoak direlako, eta bakartze-arazoak nabarmen gutxitzen ditu, eta, horrez gain, enpresaburuekin eta lankideekin harremanetan egoteko modua ematen du.

Telelantokia, erdibideko aukera

Etxea edo lantokia. Horiek dira bi aukerak, baina beste bat ere bada, erdibidekoa: telelantokiak, edo bitarteko partekatuak eskaintzen dituzten guneak. Etxeak eta lantokiak dituzten ia abantaila guztiak biltzen dituzte telelantokiek, eta ia desabantaila bakar bat ere ez. Gune publikoak izaten dira, eta gehienetan udalek eta autonomia-erkidegoek babesten dituzte. Internet eta teknologia berriak doan eta kalitatez erabili ahal izateko tresneria izaten dute. Hartara, langileak ez du inbertsiorik egin behar izaten berehala zaharkitzen diren ekipo eta programa informatikoak erosteko. Erabiltzaileak balio handiko sostengu teknikoa izaten du, eta, gainera, etenaldirik gabe lan egin ahal izaten du, inork edo ezerk ez baitio trabarik egingo.

Batik bat, teknologia berriek irispide zaila duten landa-eremuetan eta egoera txarrean dauden herriguneetan egoten dira, eta enpresa pribatuetako langileek, euren kontura lan egiten duten profesionalek edo enpresa txikiek erabili ahal izaten dituzte.

Telelantokietan

_____ . Nork bere lana egiten du, baina zalantzaren bat dutenean, elkarri kontsulta egin diezaioke edo kafea elkarrekin har dezakete, eta hartara, giza harremanak eta lanekoak erraztu egiten dira.

Lege-hutsunea

Espainiako legediak telelana ez du arautzen, berriaz, baina debekatu ere ez du egiten. Enpresetako langileek telelana aukeratzeak ez dakar berekin betebeharrak eta eskubide gehigarriak telelangile/enpresaburu harremanean, eta lehenagotik, Langileen Estatutuko 13. artikulua arautzen du harreman hori.

Nolanahi ere, 2002ko uztailaz geroztik, Telelanari buruzko Europako Esparru Akordioa dago indarrean.

_____ eta honako hauek arautzen ditu: telelanaren definizioa eta ezarpen-eremua, telelana aukera gisa, laneko baldintzak, datuen babesa, bizi-eremua, ekipamenduak, osasuna eta segurtasuna, lanaren antolakuntza, trebakuntza, talde-eskubideak, eta jarraipena. Akordioak malgutasuna eta segurtasuna parekatzen ditu, eta lanpostuen kalitatea indartzen du; izan ere, telelana kontratu batekin lotzen du, eta maila berean jartzen ditu telelangileak eta enpresetako lokaletan aritzen diren soldatapeko langileak.

A
U
K
E
R
A
K

1. Izan ere, familiako erantzukizunak lanean sar daitezke eta ordutegi finkorik ez izateak lanarekiko mendetasuna eragin dezake, besteak beste

2. ohikoa izaten da zenbait telelangile batera aritzea, euren arteko harreman profesionalik ez badute ere

3. Telelangileek eta enpresetako lokaletan aritzen diren soldatapeko langileek babes bera izan dezaten lortu nahi da akordioaren bidez,

4. Baina lanbide guztiek ez dute eskaintzen behar adina malgutasun etxetik bertatik lan egin ahal izateko

Abantailak eta desabantailak

Segidan dituzu telelanaren abantailak eta desabantailak, enpresarentzat zein langilearentzat. Hainbat ideia, ordea, solte geratu dira eta ez dakigu non kokatu.

- Irakurri ideiak eta adierazi horietako bakoitza abantaila ala desabantaila den eta nori dagokion: langileari ala enpresari.
- Ondoren, irakurri testua eta egiaztatu zure erantzuna.

Telelanaren abantailak

Langilearentzat

- Lan-ordutegi malguagoak. Laneko orduak antolatu eta nork bere beharizanetara egokitu ditzake.
- Autonomia handiagoa. Izaera independentea duten pertsonen, erantzukizuna euren gain hartzea gustatzen zaienei, telelanak autonomia handiagoa eskaintzen die.
- Ezintasunen bat duten pertsonak laneratzen laguntzen du.
- Aurrezpena. Joan-etorri gutxiago egiten dira, eta, ondorioz, denbora eta dirua aurrezten da. Arropa formal gutxiago erosi behar izateak eta etxetik kanpo otordu gutxiago egin behar izateak ere gastuak murrizten laguntzen du. Gainera, telelangileek ez dute egunero bulegora joan behar izaten, eta, ondorioz, etxebizitza merkeagoak dauden lekuetan bizi daitezke.

Enpresarentzat

- Malgutasuna handitzen da, enpresa barruan zein kanpoan. Talentu handiko langileak erakarri eta atxikitzeko, nahitaezkoa da enpresek malgutasuna eskaintzea.
- Lana eta familia-bizitza bateratzen laguntzeko modu errentagarria da.
- Lan-hutsegiteak murrizten dira.
- Enpresaren kostu finkoak txikitzen dira (leku gutxiago behar dute bulegoetarako, eta gutxiago kostatzen zaizkie argia, energia, garrarioak, alokairua eta bulegoko ekipamenduak).
- Emankortasuna handiagoa da, helburuen, emankortasunaren edo emaitzen arabera egiten delako lan. Zenbait azterlanen arabera, telelangilearen emankortasuna % 20-30 handitu daiteke.
- Enpresak eta bezeroak gerturatu dira. Telelanak eskariei askoz azkarrago erantzuteko modua ematen du, eta erantzuteko ahalmena, eraginkortasuna, zerbitzuaren kalitatea eta irudia hobetzen dira.
- Langileen artean bizikidetzaz arazo gutxiago izaten dira.
- Hedapen geografikoa areagotzen da.
- Lan-hutsegiteak gutxitzen dira eta denbora gutxiago galtzen da alferrik, lanorduek gora egiten dute, kalitate eta motibazio handiagoarekin egiten da lan, eta abar.

Telelanaren desabantailak

Langilearentzat

- Laneko girorik eza desabantaila izan daiteke: bakardadea, sostengurik edo komunikaziorik eza... Horrek guztiak motibazioa, talde-balioak, laneko gogoia eta emankortasuna galaraz ditzake.
- Telelangileek gizarte-zerbitzu eta babes gutxiago izaten dituzte, batez ere, norberaren kontura aritzen diren telelangileek.
- Segurtasunik eza eragiten du, lanari zein gizarteari begira, eta telelangileak babesik ez duela senti dezake, berariazko araudirik ez dagoelako laneko istripuei, gaixotasunei eta abarri buruz.
- Enpresara gutxiago joateak lanean gora egiteko aukerak gutxitu ditzakeela sentitu dezake langileak.
- Joan-etorriak eta mugimendua gutxitzen dira, eta langilea ohitu egin daiteke egotera eta ez mugitzera.
- Bakartzeko joera dakar halaberharrez.
- Telelanak diziplina eta antolatzeko ahalmena eskatzen dizkio norberari, eta etekina ezin hobea izateko, atsedean hartu behar da.
- Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiei buruzko etengabeko trebakuntza behar da, lan-merkatutik kanpo ez gelditzeke.
- Familiako erantzukizunak lanean sartzeko arriskua dago.

Enpresarentzat

- Langilearen bakartzeak eragina du emankortasunean, eta horrek ekar dezake enpresak emankortasun txikiagoa izatea.
- Pertsonen arteko harremanak gutxitzen dira, eta desagertu ere egin daitezke. Hartara, ideia emankorren trukeak mugatu edo desagertu egin daitezke, taldeko elkarreragina gutxitu, eta enpresa-kulturaren hedapena oztopatu. Horrek guztiak eragina izan dezake lantaldearen ahalmen operatiboan.
- Gatazkak sor daitezke, telelangileen leialtasuna dela-eta, enpresetako datu-bankuetan sartu badaitezke.
- Kasu batzuetan, telelangileen diru-saria bulegoan lanaldi osoan aritzen diren langileen kostua baino handiagoa izan daiteke.

	Abantaila langilearentzat	Abantaila enpresariarentzat	Desabantaila langilearentzat	Desabantaila enpresariarentzat
Joan-etorri gutxiago egiten dira, eta, ondorioz, denbora eta dirua aurrezten da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Segurtasunik eza eragiten du, lanari zein gizarteari begira, eta telelangileak babesik ez duela senti dezake.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Laneko orduak antolatu eta nork bere beharrianetara egokitu ditzake.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lana eta familia-bizitza bateratzen laguntzeko modu errentagarria da.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Pertsonen arteko harremanak gutxitzen dira, taldeko elkarreragina gutxitu, eta enpresa-kulturaren hedapena oztopatu.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Lan-hutsegiteak gutxitzen dira eta denbora gutxiago galtzen da alferrik, kalitate eta motibazio handiagoarekin egiten da lan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>
Produktibitatea handiagoa da, helburuen, emankortasunaren edo emaitzen arabera egiten delako lan.	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>	<input type="checkbox"/>

Eman zure iritzia

Irakurri duzuna kontuan hartuta, eman zure iritzia gaiari buruz eta eman erantzuna sekuentzia-hasieran irakurri duzun galderari, alegia,

Aukera izango bazenu, etxetik lan egiteko prest egongo al zinateke?

